

OHOREZKO EUSKALTZAIN BERRIEI OHORE

Ehun urte betetzeak ohoretsu, agurgarri egiten ditu pertsonak nahiz erakundeak. Hastea askorena izan daiteke; horrenbeste urte irautea, berriz, gutxirena. Euskaltzaindiak, aurtan, ohore hori du bere mendeurrenean; hori dela-eta, herri-erakundeen aldetik sariak, aitorpenak, dominak jasotzea egokitu zaio, baina era berean, ohore eta omenaldien aparretan gozo geratu beharrean, euskararen ehundegian dihardu gure hizkuntzaren buru-langintzan, ehuntzen. Are gehiago, bera ere erakundea den aldetik, hainbat gizon eta emakumeri ohore egitera, urteetako lana saritzera eta merezi duten aitormena egitera dator: Hamasei ohorezko euskaltzain berri izendatu ditu oraingoan.

Honela dakar *Plazaberrik* albistea:

“Apirilean Bilbon egin zen azken Osoko bilkuran, hamasei ohorezko euskaltzain berri izendatu zituen Euskaltzaindiak. Jakina denez eta bere arautegiaren arabera, Euskaltzaindiak aldiro-aldiro izendatzen ditu ohorezko euskaltzainak, hain zuzen ere euskarari egindako mesede bikainengatik nabarmendu direnen artean hautatuak”.

Lerro batzuk beherago, hau dio: “Hamaseikoan jatorri eta lanbide desberdinetako pertsonak daude, hezkuntzari, filosofiari, soziolinguistikari, bertsolaritzari, literaturgintzari, hiztegi-gintzari, kantagintzari, kazetaritzari, literatur ikerketari edota

itzulpengintzari lotuak. Guztira, bost emakumezko eta ha-
maika gizonezko izendatu dira oraingoan: bost bizkaitar, sei
gipuzkoar, bi lapurtar eta baxenabartar, arabar eta nafar bana”.



Hamaseien izen-deiturak eta profil laburrak dakartza gero. Ia guztiak zaizkigu ezagunak. Batzuk hurbil-hurbilekoak, eus-
kalgintzan noizbait edo sarri bidaide izan ditugulako; haietako
bat, berriz, geure-geurea, etxekoa: Julen Urkiza Txakartegi on-
darroarra, *Karmel* aldizkari honetan urte luzez lemazain eta
eragile gartsu duguna.



“Euskarari egindako mesede bikainengatik nabarmendu direnen artean hautatuak” dio *Plazaberri* berriemaileak. Hori ezinbesteko eskakizuna da, baina horrez gainera, adinean aurrera doazenak izan behar dute, eta entzun dudanez, sal-

buespenak salbuespen, 70 urte inguruan da adinaren beheko muga; salbuespenak ere egiten baitira, gaixo daudenekin eta gizonezkoen eta emakumezkoen artean ahalik eta portziorik egokiena izan dadin.

* * *

Euskaltzaindiak eskertu nahi izan die hainbat gizon eta emakumeri egin duten ahalegina. Sorta bikaina mendeurreneko koroa osatzeko. Lore bat galdu da dagoeneko eta hutsunea nabari da; hutsunea nabari da gure zeruan ere, baratzea argitzen zigun izar argietako bat itzali baita. Gauza asko esan litezke koroaren lore eta bitxi bakoitzaz. Altxor batzuk barrukoak izaten dira, ezkutukoak, gordeak, agertzen ez direnak, norberak ere dituenik ez dakienetakoak.



Ez dut guztiengana hurbiltzerik, bakoitzaren biografia eta lanei zehazki begiratzeko; nire argia horraino iristen ez denez gero, bertatik bertara jardungo dut, etxe-etxeko dudana. **Julen Urkizari** begira jarri naiz.



Egunero askotan gurutzatzen da nire begirada harenarekin: lehen orduan kaperan, goizeko zazpi eta erdietan, salmoen otoitz liturgikoa egiteko biltzen garenean; haren osteko bakarreko otoitzean, fedeko ilunpetik, maiteari deika, Jainkoari begira geratzen garenean, santa Teresaren gogoezko otoitzaren definizio ezagun hura egia bihurtu nahirik: “gogoetazko otoitza ez baita besterik, nire iritziz, maite gaituela dakigunarekin bakarrean sarri egonez adiskide-harremantetan jardutea baino”.

Ekintza profanoetan ere hurbil gertatzen gara: aurrez aurre jantokian. Jatordu ondoren geure pasealdiak izaten ditugu kontu-kontari. Horren harian, gure artean sarri aipatzen da latinezko esaldi hura: “Post prandium, dormire; post cenam mille passus ire”, hau da, *bazkal ostean lo egin; afal ostean, mila pauso egin*. Guk bazkal ostean ere pasealdia egiteko ohitura dugu; eguraldi ona denean, baratzean kiwien pasealekuan; euria, hotza edo haize zakarra denean, berriz, geure klaustroan, patioaren inguruan, biraka. Grezia zaharreko filosofo haiek ere horrela ibiltzen omen ziren, patio baten inguruan biraka, filosofiako kontuak aletzen; hortik zetorkien *peripatetiko* izena. Gureak, filosofo haien jardunen ondoan, axalekoak eta arruntak izan ohi dira: gure gauza txoak, haren edo honen pasadizoak, eguneko albisteren baten inguruko gorabehera txikiak, lehorreko nahiz itsasoko kontu xumeak, kirolak, Atletik futbol taldearen balentriak eta porrotak...

Afal ostean ere, harako “mille passus ire” betetzen dela esango nuke. Egunak luze direnean, udaberrian eta udan, baratzean, izadiaz gozatzen, izarrei begira, haiek kontatzen; izena ere jarri genion izar bati, “Zapolako izarra”. Zapola Markina-Xemeinen gain-gainea, berbertan dagoen mendia da, Urregarai (Santa Eufemia) baino beheraxeago dagoena, mar-

mol beltza ateratzen den harrobi handiak dituen. Honetaz ere izaten da zer esanik. Izan ere, ez da entzuten eztandarik, leherketarik, ez mugimendu handirik, baina mendia jan eta jan ari dira, hutsunea handituz, frontoi antzeko espazio handi handiak taxutuz. Aingeruak edo nor ari ote da hor, ia ez baita inor ikusten...? Aita Jose Mateo Ugartetxea Urkieta karmeldar markinarrak orain dela urte asko esaten zuen: “Bai tamalgarrria, martxa honetan, Zapola gure mendi ederra lautu behar deuskue-eta!”. Bitartean, gure barbaroari azpi-soinua jarritz-edo, zozoak ari dira kantuan; maite-kantak dirudite; zati batean hala jardun ondoren, haien buru denak-edo gau-jaiaren amaiera jotzen du eta dena isil-isilik geratzen da. Kurloiak edo artatxoriak lehenago isildu ziren berriketa etengabea jardun ondoren; txirri-txoriak, hegalaria arin eta trebeak, ezkutatu dira aireko plaza irekitik eta guk ere laster batean jo dugu barrurantz, ilunak hartara gonbidaturik.

Giza harreman xume eta arinak aipatuz tolestu ditugu aurreko lerroak, baina gure solasak, itzulinguru asko eginda, gai serioagoetara eramaten gaitu batzuetan; orduan, Julenek historiako eta batez ere Ordenaren erreformaren hasierako gaietan duen jakintza zabal eta ziurra nabarmentzen da. Ikus ditzagun haren bizitzako une berezi batzuk.

Ondarroatik karmeldarretara

Julen Urkiza Txakartegi Ondarroan jaio zen, 1944ko apirilaren 1ean. Simeon Urkiza eta Maria Txakartegiren seme-alabetatik gazteena. Sei neba-arreba: Ramon, Lolita, Juan Luis, Laureano, Jesus Mari eta gure Julen. Koskortu zenean, herriko eskolara hasi zen. Bere eskola seinalatuz, han *ibili zela* esan ohi du ironiaz, baina ez han *ikasi zuenik*... Umetako eskola barruko konturik ez diot entzun; kanpoko okerkeria eta abenturak, bai: jolasak, gerrak harrika kale batekoak bestekoen kon-

tra, udan Antiguako bederatziurrenera joan eta beheranzkoan sagarrak osten aritzen zirenekoak, uretan eginiko murgilaldiak...



Bere aitaren hainbat pasadizo entzun dizkiot. Neguan Ondarroako “Aurrera” futbol-taldeak etxean jokatzeko zuenean, nola joaten zen zira jantzita herriko taldea animatzera. Beste hau ere kontatzen zuen: Simeon “Txikixe” arrantzale fin-fina zen, alferrak gorroto zituen. Arrantzaleek, partilaz gainera, gehigarri txiki bat jasotzen zuten, lagunekin tabernan zertxobait janez ardo pixka bat hartzeko izaten zena. “Ardo-dirua”

deritza. Arrantzaleen etxe gehienetan bezala, emazteak kudeatzen zituen etxeko diruak; baita senarrak zintzo-zintzo haren esku utzi ere azkeneko txori txikiraino. Hala egiten zen Urkiza-Txakartegi familian ere. Amak ondo gordeta edukitzen zituen diruok kutxa batean. Egoerak batzuetan kontuz ibiltzea eskatzen zuen-eta, esan omen zion amak alabari: “Zu egon kutxaren gainean jarrita eta ez mugitu!”. Etorri da aita eta lagunengana joan nahi bere dirutxo hartuta. Ezin baina dirurik hartu. Eta alabari esan omen zion: “alaba, zer egiten dozu hemen etxe barruan, gaur egiten dauan eguraldiaren ederraz...?”.

Aingeru Guardakoak-edo hartu beharko zuen haien zaintza, lehorreko gerra artean eta uretako arrisku artean ezer larririk gerta ez zekien. Kiroletatik, igerian eta eskuzko pilotan zen batez ere ona; nagusiak etorri aurretik, pilotalekua hartzen saiatzen ziren, haiek etorritakoan albotik begira egon beharra izaten baitzen. Horrela, bere giroan, itsasoan arrainak bezala, alai eta bizi-bizi zebilela, karmeldarren mezularia etorri zitzaien irribarrez, behinola Nazareteko Jesus Galileako arrantzale seme gazteei bezala, eta taldeko bi edo hiruk baietz esan zuten eta izena eman; ume antzera egin zen dena, baina goiko deia zen, umeek erdi oharkabean jarraitzen zutena. Haien zaintza zeraman goiko probidentziak gidatzen zituen. Mutikoa, ordurako, nahiko zaildua zen, gorputz eta arima. Gorputza ibilaldietan, pilotan, igerian, itsasondoko abenturetan; espiritua, urrutira begira, handi izan nahirik, liluraz, pozez, ametsez. Eta nola ez zekitela, abentura berri batean sarturik ikusi zuten beren burua: ikasketak, jolasak, errezoak, diziplina ziren hango ingurumaria. Denboraren olatuak hara eta hona arin zihoazen eta Zornotzako eta Nafarroako Alesbesko egonaldiak ere laster batean igaro ziren. Uste dut, harrezkero, ez zuela esango bi ikastetxe horietan ibili zela soilik; haietan ikasi zuela ere esan ahal izango zuen.

Larrean nobizio-etxean

1961ean Larreako nobizio-etxean sartu zen eta 1962an egin zuen profesa. Karmeldar gaztetxoan ametsa harago zihoan, Karmel Mendiko Andre Mariaren Ordenan Jainkoari sagaraturik bizi osoa ematera, baina jomuga horrek bazituen etapa garrantzitsuak, eta horietako bat nobizio-etxean abitu hartzea eta batez ere profesa egitea zen. Profesa egin ondoren, profesadunek Markina-Xemeinen egin ohi zuten beste urtebete. Formakuntza espiritualari dagokionez, nobizio-urtearen jarraipena izan ohi zen, eta formakuntza akademikoari dagokionez, batxilergoko azken aurreko urtea, azkena filosofiako lehen urtean egiten baitzen. Julenek 1962-1963an burutu zuen Markina-Xemeinen egin ohi zen profesa ondorengo ikasturtea.

Vienara

1963ko irailean talde osoa Vienara joan zen ikasketak (filosofia eta teologia) jarraitzera. Karmeldarretako nagusien asmoa Austrian Ordena sendotzea zen; horregatik, gazte hauek Austriako karmeldarren itxaropena ziren.

Kontua da 1960ko hamarkadaren erdi aldetik aurrera, bokazioen krisiak jo zituela gogor seminarioak eta Eliza bera Europa aldean behintzat; eta Euskal Herrian zer esanik ez. 1980ko hamarkadara arte gutxienez, krisi-bolada horrek asko astindu zituen seminarioak; asko aldendu ziren erlijioso-bizitzatik. Ia multzoka aldendu zirela esango nuke, haize indartsu batek jota legez. Apaizgoaren lilura galdua zuten, antza denez. Eder zitzaien eta eskuragarri zoriona iragartzen zuen laiko-bizitza. Izan ere, ederra da familiako bizitza, laikoei dagokien baratze joria. Horrela, 14 bat laguneko taldetik 2 besterik ez ziren geratu: Julen Urkiza eta Antonio Sagardoi Pitillas-ko nafarra. Honek Austrian jarraitzen du eta hango karmeldarretan kargu garrantzitsuak izan ditu. Julenek ere, apaiz egin ondoren Vienan bizi izan zen 18 urteetan, lan handia egin

zuen; geroko ibilbidea markatuko zioten lehen urratsak ere han egin zituela esan daiteke, erdi ustekabean historiako ikerketari eman baitzion.

Gure karmeldar gaztea Vienan egin zela gizon handi esan dezakegu. Hango unibertsitatean egin zituen filosofia eta teologiako ikasketak; teologia biblikoa hautatu zuen espezializazio gisa, baita doktore-titulua lortu ere: *Jahweh und sein Mal'akh* [*Jahweh eta haren aingerua*] zuen tesiak izenburua. Vienako karmeldarretan liburuzain eta artxibozain izan zen. Bertan zegoen Austriako karmeldarren biblioteca eta artxibo probintziala. Vienan barruko aldizkari bat sortu zuen eta haren zuzendari izan zen; *Karmel in Bewegung* zeritzan. Eta artxibozain lanetan ari zela piztu zitzaion argia, geroko ikerketa lanetan gidari izango zuena. Ana San Bartolome dohatsuaren gutunak zeuden han. Dokumentu haiek aztertzen hasi zen. Laster konturatu zen Santa Teresa eta karmeldarren Ordenaren eraberritzea ezagutzeko iturri ezin gardenagoa zela Ana San Bartolome dohatsua. Argi ikusi zuen Santa Teresaren herentziaz eta haren karismaz lehenago idatzi ziren hainbat teoria, karmeldarren artean nahiko onartuak zeudenak, kolokan egon daitezkeela eta berraztertutako beharko zirela, iturririk gardenenetakoa kontuan hartu ez zelako. Horrela, Gaztelako karmeldar Teófanés Egido historialari ezagunari eskaini zion dokumentazioa, azter zezan, baina hark sorta beronen gain utzi zuen, esanez: “Hazlo tú”. Hona, nola hasi zen, ustekabean, Ordenaren historia eta, bereziki, Ana San Bartolome dohatsuaren biografia eta idazkiak arakatzeko. Hasi bazen hasi zen eta gaur arte.

Vienatik Euskal Herrira

1981eko abenduan Euskal Herrira etorri zen hemen gertatzeko, eta Larreako komentukoa izan zen 1982ko urtariletik 1993ko udara arte. Urte horretatik gaur arte Markina-Xemeinen dago eta hainbat alditan izan da komentuko nagusi; une

honetan ere bai. Larrean bizi zela, hirugarren urtean (1984) *Karmel* aldizkariaren zuzendari izendatu zuten; 34 urte igaro dira eta gaur egun ere bere gain du aldizkariaren zuzendari-tza. 150 idazlan baino gehiago idatzi ditu *Karmelen*. Julen Urkizaren lana zabala eta harrigarria da batez ere historia arloan; Euskal Herriko Elizaren historia eta Ordenaren historia aztertu ditu bereziki. *Karmel* aldizkariaren zuzendari izanez, euskarazko liburuen bildumak sortu ditu: “Karmel Sorta” (1989-), “Vasconia Sacra” (1995-) eta “Karmel Lekukoak” (1996-).





Euskarazko liburuak

Goian aipaturiko bildumetan argitaratu ditu, bere estudio eta ikerketaz, Lino Akesoloren idazlanak (*Idazlan guztiak*, 3. liburuki, Larrea-Zornotza 1989-1992. KS-1*, 1**, 1***); Santiago Onaindiarenak (*Olerki guztiak*, Larrea-Zornotza 1989, 342 orr. KS-2); Sabin Muniategirenak (*Olerki guztiak*, Larrea-Zornotza 1990, 1155 orr. KS-3); aipamen berezia merezi du Frai Bartolome Santa Teresaren idazlanen argitalpenak (*Idazlan guztiak. Edizio kritikoa*, Bilbao 2000 1557 orr. KS-12); liburu hau, sarrrera orokor zabalak dituen, Luis Baraiazarrak eta Julen Urki-

zak prestatua izan zen arreta handiz. Beste batzuetan elkarlanean eginiko obrak zuzendu ditu Julenek, esaterako, ondorengo hauek: *1491 Loiolako Inazio – Joan Gurutzekoa 1591*, Larrea-Zornotza 1990, 511 orr. KS-4); *Aita Gabirel Jauregi Uriarren (1895-1945)*, Markina 1995, 512 orr. KS-7); Teresa Jesus Haurarena Lisieuxkoa (*Idazlan guztiak. Testuak eta Azken Elkarriketak*, Markina-Xemein 1996, 1223 orr. KS-8). Liburu hau ere argitaratu zuen: Augustin Zubikarai, *Bigarren Errepublika denboraldiko idazlanak*, (Edizioaren prestatzailea: Julen Urkiza), Ondarroa 2009, 198 orr.



Bere-bereak ere argitaratu ditu, esaterako, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991)*. *Historia eta agiriak*, Larrea-Zornotza 1992, 936 orr. KS-5 (Euskal idazketaren arduraduna: Pxtxi Uribarren); *Elizaren Historia Euskal Herrian. I. Ikerlan materialak*. Markina 1995, 1459 orr., VS-1 (Euskal idazketaren arduraduna: Luis Baraiazarra); *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia*. Markina-Xemein 1999, 1740 orr. KS-11; *Karmel. Katalogoa*, Markina 2005, 48 orr.; *Karmel (Karmengo Argia, Karmengo Amaren Egutegia, Karmel)*. *Bibliografia osoa (1931-2007)*, Karmel 2008-2, 1-338.

Luis Baraiazarrarekin batera, “Bidegileak” bildumako lau liburuxka argitaratu zituen: *Santiago Onaindia (1909-1996)*, (Vitoria 1998, 25 orr.), *Augustin Zubikarai (1914)*, (Vitoria, 1999, 25 orr.), *Lino Akesolo (1911-1991)*, (Vitoria 2002, 25 orr.), *Hipolito Larrakoetxea (1892-1976)*, (Vitoria 2004, 25 orr.). Beste hau ere prestatu eta argitaratu zuen: *Gurutzeko Joan donea. 1591-1991. Artea – bizitza – gogoetak*, Larrea-Zornotza 1990, 112 orr.; Luis Baraiazarraren itzulpen-lan handia kudeatzen eta argitaratzen esku hartu zuen: *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa. Konstituzioak. Dekretuak. Adierazpenak. Dokumentu osagarriak. Euskaraz eta latinez*. Bilbao 2003, 1500 orr. (Obra hau Luis Baraiazarrak itzuli zuen osorik; Julen Urkizak zuzendu eta Deustuko Unibertsitateak argitaratu zuen). Bien artean argitaraturiko azken liburua hau izan da: *Karmeldarrak Euskal Herrian. Nafarroako San Joakim Karmeldar Probintzia. (XIII-XX. mendeak)*, Markina 2010, 309 orr. (Karmel Lekukoak 5).

Dibulgaziozko liburuxka batzuk ere argitaratu ditu euskaraz eta gaztelaniaz Juan Mari Arrizabalagaren marrazkiz jantziarik eta Luis Baraiazarrak euskarara egokiturik; esaterako, Larreako Komentuaren monografiaren osagarri, liburuxka polit bat atera zen euskaraz. Markina-Xemeingo liburuxka, besteak beste, karmeldarren historia labur-labur, gure santuen pentsa-

mendu batzuk eta elizako artea eta deskripzioa agertzen dituenena. Beste bat ere bai hari berekoa, koloretsu eta deigarri, bokazio-zabalkundeari begira egina.



Erdarazko liburu eta idazlanak

La beata Ana de San Bartolomé y la transmisión del espíritu teresiano, Roma 1977, 192 orr. (Monte Carmelo 84 (1976) 115-301).

Obras Completas de la beata Ana de San Bartolomé. Tomo I. Edición crítica preparada por Julián Urkiza, OCD, Roma 1981. IX 205* - 858 orr. (Monumenta Historica Carmeli Teresiani, 5). Tomo 2 *Cartas*.

Ana de San Bartolomé, *Obras completas*. (Edición preparada por Julián Urkiza). Burgos 1999, 1642 pp. (Maestros espirituales cristianos, 16).

Anne de Saint-Barthelemy, *Autobiographie* d'après l'édition critique publiée en 1981 par le Père Julián Urkiza, OCD, du manuscrit autobiographe conservé au Carmel d'Anvers. Introduction et notes par le P. Urkiza. Traduction française par le P. Pierre Séroutet, OCD. Gent, 1989. 211 pp. (Esta misma obra apareció en holandés en la misma ciudad y fecha).

Ana de San Bartolomé (1549-1626). Compañera inseparable de santa Teresa de Jesús. Breve biografía y novena, Burgos 2004, 188 pp.

Comienzos del Carmelo teresiano francés. Búsqueda de candidatas (1604), Burgos 2004, 274 pp. (Estudios MC).

Beata Ana de San Bartolomé, *Pensamientos y vivencias (Llamadas de luz y amor)*. Por Julen Urkiza, OCD (con la colaboración de Sonia Rivas y Belén Yuste), Madrid 2005, 96 pp.

Procesos de beatificación y canonización de la beata Ana de San Bartolomé (Testimonios selectos) (1630-1640). Edición preparada por Julen Urkiza y Félix Malaxetxebarria, Burgos 2010, 674 pp. (BMC, 33).

Concordancias de los escritos de beata Ana de San Bartolomé. Volumen I: A-E, Markina-Xemein 2011, 1-890 pp. *Volumen II: F-O*, Markina-Xemein 2011, 891-1596 pp. *Volumen III: P-Z*, Markina-Xemein 2011, 1597-2577 pp.

Itinerario del pensamiento y de los escritos de la beata Ana de San Bartolomé (1549-1626). (Recorrido bio-bibliográfico y temático a través de sus manuscritos), en: ABCT nº. 51 (Roma 2011) 649 pp.

Ana San Bartolome dohatsuaz idatziriko hogeita hamar idazlanetatik hamaika hauek aipa daitezke:

La madre Teresa de Jesús y Ana de San Bartolomé. (Relaciones humanas y espirituales de dos santas), Monte Carmelo 101 (1993) 509-546; 102 (1994) 5-39.

Una página importante de la historia de la Iglesia francesa (Comentario crítico a “Pierre de Bérulle et les Carmélites de France”), Monte Carmelo 104 (1996) 85-145.

Ana de San Bartolomé, heredera teresiana de la fidelidad en la unidad (Esquema de la historia de fidelidad teresiana ayer y hoy), Monte Carmelo 106 (1998) 61-108.

Beata Ana de San Bartolomé, mística española en servicio espiritual de Alemania (siglo XVII), Revista Española de Teología 66 (2006) 59-97.

Ana de San Bartolomé e Isabel Clara Eugenia. Dos mujeres dirigentes de la vida social y religiosa en Flandes (Entre treguas y guerras buscando la paz), Monte Carmelo 114 (2006) 319-380.

Beata Ana de San Bartolomé, mística española en servicio espiritual de Alemania (siglo XVII), Revista Española de Teología 66 (2006) 59-97.

Beata Ana de San Bartolomé y la Regla del Carmelo. (En el 8º centenario de la Regla), Monte Carmelo 115 (2007, nº 2) 67-85.

Beata Ana de San Bartolomé. Fundadora y Priora del Carmelo de Pontoise. (En el 4º centenario), Monte Carmelo 115 (2007, nº 2) 137-171.

Soldados españoles de Flandes y sus mujeres bajo el amparo espiritual y solidario de Ana de S. Bartolomé, Monte Carmelo 116 (2008) 165-202.

La “libertad de confesores”, una de las claves para el entendimiento de la madre Teresa y de su herencia (en testimonios y vida de Ana de San Bartolomé), in: Dámaso Zuazua (ed.), *Historiografía del Carmelo Teresiano. Storiografía del Carmelo Teresiano. Actas del Simposio Internacional OCD. Atti del Sim-*

posio Internazionale OCD. Roma 2-5 / 01 / 2009, Roma 2009, 441-484 (IHT, Studia, 11).

Jerónimo Gracián de la Madre de Dios y Ana de San Bartolomé. Los escritos de la Beata en su comprensión cronológica, Monte Carmelo 119 (2011) 283-319.

Edith Steinen, santa Teresa Benedikta Gurutzekoren, idazlanak itzuli zituzten alemanetik gaztelaniara 5 liburukitan; Julen Urkiza eta Burgosko Probintziako Francisco Javier Sancho izan ziren itzulpen eta argitalpen horren zuzendari eta koordinatzaile. “Espiritualidad”, “Monte Carmelo” eta “Ediciones el Carmen” argitaletxeek elkarlanean burutu zuten: Volumen I: *Escritos autobiográficos y Cartas*, Vitoria-Madrid-Burgos 2002, 1766 pp.; volumen IV: *Escritos antropológicos y pedagógicos (magisterio de vida cristiana, 1926-1933)*, Vitoria-Madrid-Burgos 2003, 1172 pp.; volumen V: *Escritos espirituales (En el Carmelo Teresiano: 1933-1942)*, Burgos-Madrid-Vitoria 2004, 963 pp.; Volumen II: *Escritos filosóficos (Etapa fenomenológica: 1915-1920)*, Burgos-Madrid-Vitoria 2005, 949 pp.; Volu-



men III: *Escritos filosóficos (Etapa de pensamiento cristiano: 1921-1936)*, Burgos-Madrid-Vitoria 2007, 1229 pp.

Eta Santa alemaniarraz argitaraturiko idazlanen artean hiru hauek aipa genitzake:

San José en la vida y obra de Edith Stein (Santa Teresa Benedicta de la Cruz), Estudios Josefinos 59 (2005, nº 117) 75-113.

Edith Stein, hija de una familia alemana judía, Monte Carmelo 113 (2005) 293-340.

El libro de la vida de Teresa de Jesús y Edith Stein. Relación e influencias, Monte Carmelo 119 (2011) 259-282.

Elkarlanean eginiko historia-lana da ondorengo hau: Julen Urkiza – Antonio Unzueta – Ángel Fernandez de Mendiola, *Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria (Siglos XIII-XX)*, Vitoria-Gasteiz 2005, 1012 pp.

Julen Urkiza, *Los Carmelitas en Larrea. Tres siglos de vida e historia (1712-2012)*, Larrea 2012, 832 pp.



Ana de San Bartolomé, *Obras completas*. (Nueva edición revisada y aumentada por Julen Urkiza), Burgos 2014, 1712 or. (Monte Carmelo).

Julen Urkiza, *Beata Ana de San Bartolomé. Su vida y su tiempo en España, Francia y Flandes (1549-1626)*, Roma 2015, 1276 pp. (Institutum Historicum Teresianum. Studia, 17).

Procesos de beatificación y canonización de la madre Teresa de Jesús. Edición del quinto centenario preparada por Julen Urkiza, O. C. D. Tomo I: Procesos informativos de los años 1591-1592 Y 1595-1597. Burgos 2015. (BMC 35).

Procesos de beatificación y canonización de la madre Teresa de Jesús. Edición del quinto centenario preparada por Julen Urkiza, O. C. D. Tomo II: Procesos remisoriales de Ávila y Salamanca in genere (1604) y de Madrid in specie (1609-1610). - Procesos compulsorios de El Escorial, Toledo, Malagón-Daimiel y Salamanca-Alba de Tormes (1609-1610). Burgos 2015. (BMC 36).

Procesos de beatificación y canonización de la madre Teresa de Jesús. Edición del quinto centenario preparada por Julen Urkiza, O. C. D. Tomo III: Proceso remisorial de Salamanca y Alba de Tormes in specie (1609-1610). Burgos 2015. (BMC 37).

Procesos de beatificación y canonización de la madre Teresa de Jesús. Edición del quinto centenario preparada por Julen Urkiza, O. C. D. Tomo IV: proceso remisorial de Ávila in specie (1610). - Procesos compulsorios de Zaragoza, Segovia, Ávila y Madrid (1610-1611). Burgos 2015. (BMC 38).

Procesos de beatificación y canonización de la madre Teresa de Jesús. Edición proceso remisorial de Ávila in specie (1610). - Procesos compulsorios de Zaragoza, Segovia, Ávila y Madrid (1610-1611), Burgos 2016, 1004 pp. (BMC 39).

Procesos de beatificación y canonización de la madre Teresa de Jesús. Edición del quinto centenario preparada por Julen

Urkiza, O. C. D. Tomo VI: *Últimos pasos de la Sagrada Congregación de Ritos hacia la beatificación y canonización (1609-1622)*, Burgos 2016, 959 pp. (BMC 40).

Julen Urkiza, *La Pasión del Señor en la beata Ana de San Bartolomé*, Monte Carmelo 124 (2016) 133-189.

Julen Urkiza, *Una lección de misericordia en la beata Ana de San Bartolomé*, Monte Carmelo 124 (2016) 379-404.

Ana M^a Ruiz Zapata - Julen Urkiza, *Vida en imágenes de Ana de San Bartolomé*, Burgos 2016, 116 pp.

Eta Markinako Karmeldarren historiari dagokion dokumentazio zabal hau:

Reimplantación del Carmelo Teresiano masculino en España. Documentación y correspondencia epistolar de los fundadores (1867-1882). Tomo I: *Comienzos en Marquina. Bajo la amenaza de nuevas expulsiones (1867-1870)*. Edición preparada por Julen Urkiza, Roma, 2007, 1091 pp. (MHCT, 24).

Reimplantación del Carmelo Teresiano masculino en España. Documentación y correspondencia epistolar de los fundadores (1867-1882). Tomo II: *Hacia la unión de toda la Orden (1871-1876)*. Edición preparada por Julen Urkiza, Roma, 2007, 951 pp. (MHCT, 25).

Reimplantación del Carmelo Teresiano masculino en España. Documentación y correspondencia epistolar de los fundadores (1867-1882). Tomo III: *La primera expansión (1876-1882). Primera parte*. Edición preparada por Julen Urkiza, Roma, 2007, 747 pp. (MHCT, 26).

Reimplantación del Carmelo Teresiano masculino en España. Documentación y correspondencia epistolar de los fundadores (1867-1882). Tomo IV: *La primera expansión (1876-*

1882). *Segunda parte*. Edición preparada por Julen Urkiza, Roma, 2007, 739 pp. (MHCT, 27).

Actas de los capítulos provinciales de la provincia O. C. D. de San Joaquín de Navarra (1879-1999). Edición preparada por Julen Urkiza, OCD, Roma 2018, 1053 pp. (MHCT, 33).

Azken hitza

Izenburuko hitzekin lotu nahi nuke azken hitza: *Obo-rezko euskaltzain berriei ohore*, Julen Urkiza gure aldizkariaren lemazainari batez ere; *Karmelekoei* gure gidariari ohore egitea dagokigu. Aldizkariaren lema ia 35 urtean darama bere esku. Hogeita bosgarren urtean, bikiak sortu ziren, hau da, 2008ko bigarren zenbakia bi ale mardulez zetorren: alde batetik aldizkariaren bibliografia osoa gerra aurretik 1931n hasi eta 2007ra artekoa eskaintzen zen. Zuzendaritzan 25. urtea betetzean, opari hori egin nahi izan zien Julen Urkizak irakurleei. Beste alea ere bete-betea eta ederra, 312 orrialdekoa. Urte haietan gure Luis Arostegi munduko karmeldar guztien Jenerala zen eta gutun polit-polita idatzi zion zuzendariari, ale horretan argitaratu zena. Hango bi esaldirekin amaituko dugu:

“Aldi gaitza izan da. Eta bidaldi orretan ardatza zu izan zara. Ondarrutarra zaranez, egoki esan daikegu lemazaina izan zarala”.

“Zuk, Urkiza, orain zuzendu barriro ere itsasontzi branka itsaso zabalera, ‘joateko urrutira’, beste hogeita bost urtetarako ibilaldira”.

EUSKALTZAIN URGAZLE ETA OHOREZKO BERRIAK

Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkaritzan izan da, Aita Luis Villasante Ikergunean. 2018ko azaroaren 23an 16:30ean zen ekitaldiaren hasiera. Ordu erdi lehenago, 16:00etarako, hara hurbiltzea eskatu zitzaien Euskaltzaindiaren diploma eta ikurra jaso behar zuten euskaltzain urgazle nahiz ohorezko berriei. Horrela, ekitaldia hasi aurretxoan, jendez bete-bete egin zen Tolareko goiko solairu zabala.

Etxe honen hainbat xehetasun jakin genituen hara orduko, Euskaltzaindiaren egoitza bihurtu aurrekoak, bere ize-nari erantzunez sagardoa egiten zen baserria zenekoak. Juan Mari Arrizabalaga artistak, lumatxoz eginiko haren marrazkia eskuratu zigun, argazki zaharretik moldatua eta aitzur erraldoi baten ahoan kokatua. Goiko solairuan, haga sendoen babespean geundela, etxe honen lehena eta oraina etorri zitzaizkidan une batean; honen eraldaketa lehendik hona: sagardoa egiten zenetik euskararen edari fina ekoizterako bidea nola egin duen.


Hor izan da, Euskaltzaindiaren mendeurrenaren barruan, 2018ko azaroaren 23ko ekitaldi hunkigarri eta atsegina, hasieran eta tartean musikaz gozatua. 2015 eta 2018 artean euskaltzain urgazle eta ohorezko izendaturikoak hartu dituzte diploma eta Akademiaren ikurra. 16 ohorezko eta 24 urgazle ziren deituak. Batzuk ez dute etortzerik izan, baina gehienak han bildu dira. Urgazleen diplomak hau dio: “Euskaltzaindiak euskararen alde orain arte egin dituen lanen esker-erakutsiz eta gerokoen pizgarri, urgazletzat hartu du”.



Donostiako Euskaltzaindiaren egoitza (Tolare)

Ohorezkoenak, berriz, beste hau: “Euskaltzaindiak euskaren aldeko haren merezimendu bikainak aitortuz, euskaltzain ohorezko izendatu du”.

Ohorezkoei hitz egin die lehenbizi Andres Urrutia euskaltzainburuak: “Askotarikoak dira zuen eginak, hitzetan nahiz ekintzetan, euskalgintzaren esparruan. Horiek eskertu nahi di-



"Tolare" baserri zaharra, Juan Mari Arrizabalagak lumatxo marraztua

tu Euskaltzaindiak ekitaldi honekin eta, bide batez, zuen presentzia baliatu zor zaizuen ohorezko izate hori nabarmentzeko eta azpimarratzeko gizartearen aurrean”.



Urgazleei gogo berotu nahi izan die euskaltzainburuak lanean jarrai dezaten. “Horretan ari gara azken urteotan, uste baitugu Euskaltzaindiak bere ateak ireki behar dizkiela euskararen arloan egunotan bizien dabiltzan sektoreei. Hor ari zarete zuek ere, andrazko zein gizonezko, literaturan, kazetari-tzan, zientzian, administrazioan, irakaskuntzan, ikerketan eta bestelakoetan. Hortxe eta Akademian ere nahi zaituzte Euskaltzaindiak, euskara eguneratu baten eskakizun eta premiei erantzun egokia emanez”. Eta ondoren hau gehitu zuen: “Akademiak badaki zer den lan hori eta berori barruratu nahi du, aukera emanez belaunaldi berriei, parte har dezaten Euskaltzaindiaren zereginetan. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazleak aintzat hartu, lanean jarri eta baliatu behar ditu”.

- Diploma jaso duten euskaltzain urgazleak hauek dira (2015-2018): Jon Aizpurua, Irene Arrarats, Rikardo

Arregi, Ainhoa Arregi, Asier Bidart, Agurtzane Elordui, Roberto González de Viñaspre, Karmele jaio, Maite Lakar, Gotzon Lobera, Céline Mounole, Xabier Peritz 'Euzkitze', Patxi Petrirena, Patxi Salaberri, Allande Socarros, Luis Mari Zaldua, Josu Pikabea, Andres Alberdi, Amaia Apalauza, Xabier Erize, Iñaki Martinez de Luna, Rosa Ramos, Castillo Suárez, eta Blanca Urgell.



- Diploma jaso duten ohorezko euskaltzainak hau: Jose Antonio Aduriz, Martzel Andrinua, Txaro Arteaga, Maria-Jose Azurmendi, Miren Jone Azurza, Henri Duhau-Lafourcade, Izaskun Gastesi, Abel Muniategi, Jose

Mari Rementeria, Julen Urkiza, Arantxa Urretabizkaia, Pello Zabala, Auxtin Zamora, Txomin Solabarrieta, Sabina Salaberri eta Manex Pagola*.

(*) *Ekainaren 7an hil zen Manex Pagola, eta aurrerago egingo den ekitaldi berezi batean bere familiari emango zaio diploma.*

Euskaltzain urgazleek eta ohorezkoek euskaltzain oso baten eskutik jaso zituzten diploma eta ikurra. Ohorezkoek hitz egin zuten banan-banan eta labur. Guk, Andres Urrutia euskaltzainburuaren eskutik diploma eta ikurra jaso ondoren, *Karmelen* zuzendariak esandakoak biltzen ditugu:

“Ni euskaltzalea naiz, baina ez euskaralogoia, eta euskara erabiltzen ere ez naiz maisu. Egia da euskal literaturari dagozkion liburuak atera ditudala. Horrez gainera Euskal Herriaren historiari buruzko lan ugari argitaratu ditut...

Baina, nik uste, Ohorezko Euskaltzain egitearen arrazoi nagusia ni 35 urtean Karmel aldizkariaren zuzendari izatea dela. Baina ekintza hau aintzat hartzea, batez ere aldizkariaren idazle finen eta leialen lana saritzea da, eta horietako idazle batzuk hemen daude, eta ohorezko euskaltzain ospea hauei ere badagokie. Eta beste barik: eskerrik asko Euskaltzaindiari eta honen buru den lehendakariari. Eskerrik asko!”

Gero, horrelakoetan ohi denez, hainbat argazki egin dira eta elkar agurtuz, jendea pozik etxeratu da, euskal giro gozoa dastatu ondoren.

Luis Baraiazarra Txertudi